

Urtero legez, Gernika-Lumoko herritarrek bonbardaketaren urteurrena izan zuten gogoan, gertaera anker hura ahanzturan gera ez dadin; hainbat ekitaldi antolatatu zituzten gernikarrek 77. urteurrenerako.

# Urtero errautsetatik berpizten den herria

## Endika Urlezaga

**U**rtero-urtero Gernika-Lumo bere errautsetatik berpizten da, apirilaren 26an. Con-dor Legioak eragindako sumispenak izua eta hertotza ekarri zituen bertoko herrira, eta gertaera anker hura ahanzturan gera ez dadin, gernikarrek kalera ateratzen dira egun berezi horretan.

Aurten, bonbardaketaren 77. urteurrena gogoratu zuten eskualdeko zein herriko biztanleek. Goizean goiz hasi ziren bonbardaketaren egitarauko ekitaldiak, George Steer zenari egindako omenaldiagaz. Kazetaria izandakoaren semeak eta alkateak lore eskaintza egin zuten Barrenkale Barrena kalean dagoen monolito-

ri arratzuarrak jaso baitzuen sari nagusia. Benigno eta Rosa Leginetxe anai-arrebek hartu zuten saria, urtarrelean zendutako kasetariaren izenean.

Bigarren saria, bestalde, John Wynne militar britainiarrek jaso zuen. Haren semeak jaso zuen oroigarria, RAFeko (Erresuma Batua) pilotu ohiak Llanbedr (Gales) eta Huchenfeld (Alemania) herrien arteko laguntasuna bultzatu zuelako.

Ekitaldian, Euskal Herrian bakera lortzeko sortutako abagunea aprobetxatu behar dela nabarmendu zuen Gorroñok. Haren berbetan, «den-denok daukagu bakearekiko erantzukizuna».


Bestalde, Luis Iriondok Nagasako alkate Tomihisa Tauerengutun bat irakurri zuen. Gernikak 1.100.000 herritarrei zuzendutako

ketako ekitaldiak. Performance herrikoi horren bitartez gogoratu zuten 1937 sarraskia, 15:45ean sarena hotsa hasteagaz batera.

*Gernika sutan* antzezlanaren moldaketa den *Gernika garretan* lanaren antzezpena ekarri zuten ihuntzean herritarrek, eta egitarauarekin amaitzeko, ohiko manifestazio isila egin zuten, kandelak eskuetan zituztela.

## Ekitaldi gehiago

*Oinidik eurrera zeuek kontu biherko dozueu geuriek...* lelopean, Lobek eta Astrak ere egitarau berezia eduki zuten, joan den zatuan. Besteak beste, Astra ondoko babesleku ezagutzeko bisitagiatuak antolatatu zituzten, eta *Hondartza* film laburra proiektatu zuten. Mikel Laboaren *Gernika* abestian oinarritutako *Gerni-*



Egiaren garrantziaz mintzatu ziren ekitaldian, kazetariak *The Times* egunkarian argitaratutakoa eskertuz. Izan ere, Steer izan zen «benetako egia» berri eman zuen lehen kazetaria.

Bakearen eta Berradiskidetzaren Gernika Sarien ekitaldia egin zuten ondoren Lizeo Antzokian. Aurtengoa, ekitaldi berezia izan zen, Manu Leginetxe kazeta-


idatzian, bakean oinarritutako mundu baterako bidea elkarrekin egiteko deia egin zuen.

Goizeko ekitaldiak Gernika Bartzordeak antolatutako erabakitze eskubidearen aldeko giza kateagaz amaitu ziren. Parte hartzaileek Pasatekuko babeslekua eta Andra Mari kalekoa lotu zituzten.

Arratsaldean lau minutuko isil-luneagaz hasi zituzten bombardam-

enak, bestealde, inperialismoaren kontrako elkarretaraztea egin zuten bonbardaketaren urteurrenean. Jakinarazi zuten, «gaur egungo estruktura politikoa mugiarazten dituen 36ko guda bultzatu zuen ideologia inperialista».

koak mugiarazten dituen 36ko guda bultzatu zuen ideologia inperialista».




## Irudia



## 'MEMORIA ETA GERRA' LANA AURKEZTUZ

Joan den astean, Jose Iturraren *Memoria eta Gerra* liburua aurkeztu zuten Gernika-Lumon. Iturririak Durangoko nahiz Gernika-Lumoko bonbardaketak bizi izan zituen, eta leku horietan bizita-

koak dakartza gogora liburuan. Iturriaz gain, Jose Mari Gorroñok, Sabino Arana Fundazioko Xabier Goigoranak, eta Nevadako Unibertsitateko Xabier Irujok parte hartu zuten aurkezpenean. [eu](http://eu).



Irudietan bonbardaketaren urteurren eguneko hainbat ekitaldi. HITZA